

# IV INTERNATIONAL FORUM ON COOPERATIVE LAW

Cooperation among cooperatives:  
a principle of the past or for the  
future?

Editores

Itziar Villafáñez Pérez

Aingeru Ruiz Martínez

Aitor Bengoetxea Alkorta

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

CIP. Biblioteca Universitaria

**International Forum on Cooperative Law** (4º. 2023. Donostia-San Sebastián)

IV International Forum on Cooperative Law [Recurso electrónico]: cooperation among cooperatives: a principle of the past or for the future? / editores, Itziar Villafáñez Pérez, Aingeru Ruiz Martínez, Aitor Bengoetxea Alkorta. – Datos. – [Leioa]: Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, [1 – .[2024 recurso en línea : PDF (182 p.)

Modo de acceso: World Wide Web

Textos en inglés, euskara y español.

ISBN. 978-84-9082-655-3.

1. Cooperativas - Congresos. 2. Cooperativas – Derecho – Congresos. I. Villafáñez Pérez, Itziar, ed. II. Ruiz Martínez, Aingeru, ed. III. Bengoetxea Alkorta, Aitor, ed.

(0.034)347.726(063)

**Entidades organizadoras**



**IUS Cooperativum**  
*A Community of Co-operative Lawyers*



UPV/EHUko Gizarte  
Ekonomia eta Zuzenbide  
Kooperatiboaren Institutua  
Instituto de Derecho  
Cooperativo y Economía  
Social de la UPV/EHU



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

ZUZENBIDE  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE DERECHO



**International  
Cooperative  
Alliance**

**Entidades colaboradoras**



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**



**KOOPERATIBEN  
KONTSEILUA**

© Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco  
Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua  
ISBN: 978-84-9082-655-3

# Kooperatiben arteko lankidetzaz gizarte-erronkei aurre egiteko lanabes gisa

Francisco Javier ARRIETA IDIAKEZ

Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko irakasle titularra (Deustuko Unibertsitatea)

**Laburpena:** I. Sarrera. II. Zenbait kolektiboenganako arduraz: 1. Emakumeak. 2. Migratzaileak. 3. Desgaitasuna duten pertsonak. III. Trantsizio digitala. IV. Trantsizio ekologikoa. V. Gizarte-babesa.

## I. Sarrera

Komunikazioaren helburua da gaur egungo gizarteak dituen hainbat erronka kontuan hartzea, eta horiei aurre egiteko kooperatiben arteko lankidetzaz baliatzea, bai eta, hala denean, beste erakunde batzuen ere. Jorrotutako erronken artean dira zenbait kolektiborenganako arduraz, hala nola, emakume, migratzaile eta desgaitasunen bat duten pertsonenganakoa, trantsizio digitala, trantsizio ekologikoa eta gizarte-babesa.

Lankidetzaren oinarri, kooperatiba-esparruan posible diren lankidetzaz-mota guztien artean, kasu batzuetan, pertsonifikatu gabeko integrazioaren alde egin da, hots, kooperatiba-taldearen alde. Eta halakoan artean kooperatiba-talde parekidearen alde [abenduaren 20ko 11/2019 Legearen, Euskadiko Kooperatibei buruzkoaren (EKLren) 154. artikuluko lankidetzaz bidezko kooperatiba-taldeak]. Hain zuzen, uste dugu lankidetzaz hori dela egokiena, bateragarri egiten dituen heinean, bateko, baterako zuzendaritza, eta, besteko, kooperatibari datzekion demokrazia eta autokudeaketa. Modu horretara, horrelako taldeek oinarri dute berau osatzen duten kooperatiben arteko akordio parekide eta askea. Gainera, talde horietan, baterako zuzendaritza askoren artean edo denen artean hartutako erabakiaren ondorio da, eta ez kooperatiba batek osterantzekoen gaintik ezarritako erabakiaren ondorio. Bestela esanda, horrelako taldeetan ez dago kooperatiba nagusi eta mendekorik. Kooperatiba guztiek batera zehazten dituzte taldearen antolaketari eta jardunbideari buruzko inguruabar guztiak. Azken buruan kooperatiba-integrazio horren bidez enpresa-interesak koordinatzen dira. Hain justu ere, koordinazio horren baitan taldeko kooperatiba guztiek bete beharreko jarraibideak akordia daitezke. Horren adibide lirateke, emakume, migratzaile eta desgaitasunen bat duten pertsonen inguruan egindako proposamenak. Baita trantsizio ekologikoari begira proposatutakoak ere.

Aitzitik, trantsizio digitalaren arloan, kooperatiben arteko lankidetzaz-akordioaren eta kooperatiba mistoen alde egin da, lankidetzaz ekonomikoan oinarritu delako gure proposamena (hurrenez hurren, EKLren 153 eta 155. artikuluetan).

Azkenik, gizarte-babesari dagokionez, kooperatibak integratzeari eta taldekatzeari buruzko kapitulutik at (hots, III. kapitulutik at), EKLren 17. Xedapen Gehigarriari helduta, kontuan hartu dugu kooperatibek euren bazkideentzako borondatezko gizarte-aurreikuspenaren inguruko erabakiak hartzea bultzatzea, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeek buruzko otsailaren 23ko 5/2012 Legean xedatutakoari jarraituz.

## II. Zenbait kolektiborenganako ardura

### 1. Emakumeak

Kooperatiba-printzipio eta -balioak aproposak dira genero-berdintasuna bultzatzeko, baina beharrezkoa da berdintasun-planak kooperatibetan ere hedatzea. Ez da nahikoa kooperatiba-legeek arautzea kooperatibek genero-berdintasuna ezartzen ahalegindu behar dutela. Beharrezkoa da kooperatiben berdintasun-planak erregistratu ahal izatea, bai eta plan horiek kontuan hartzea ere, azaroaren 8ko 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuari buruzkoa, betetze aldera, adjudikazio-irizpideen baitan.

Gaur egun, urriaren 13ko 901/2020 Errege Dekretuak ez du ahalbidetzen kooperatibei berdintasun-planen arauketa hedatzea, inorentzako langileak dituzten enpresetara mugatzen delako.

Ildo horretatik, nabarmendu behar da Euskal Autonomia Erkidegoko abenduaren 21eko 15/2023 Legea, Enpleguari buruzkoa, EKL eraldatu duelako (32.bis artikulua gehituta). Horren ondorioz, bateko, 50 bazkide langile edo gehiago dituzten lan elkartuko kooperatibek nahitaez egin behar dituzte berdintasun-planak, eta, besteko, beste horrenbeste laneko bazkide dituzten gainerako kooperatibetan borondatezkoa izango da plan horiek egitea. Edonola ere, plan horien norainokoa eta edukia erregelamendu bidez garatu beharko dira. Gure proposamena da estatu-mailako legeria eraldatzea, ahalbidetzeko kooperatibetan inorentzako langileak eta bazkideak batera kontuan hartzea, orotara 50 enplegatu edo gehiago dituzten kooperatibetan berdintasun-planak izan daitezen, enplegatu horiek inorentzako langile nahiz bazkide izatea gorabehera.

Bestalde, kooperatiba legeren batek, Extremadurakoak, kasurako, berdintasun-komitea arautu du, 50 bazkideetik gorako kooperatibentzako (ikusi urriaren 30eko 9/2018 Legearen 64. artikulua) (Arrieta-Idiákez, 2022a). Gizarte Ekonomia oso-osoan arautzeko Legearen aurre-proiektua ere ildo horretatik zihoen. Baina guk azaroaren 8ko 31/1995 Legearen, Lan-arriskuak Prebenitzeari buruzkoaren, logikaren alde egiten dugu, hau da, lege horren 10. Xedapen Gehigarriaren ildotik joko genuke: inorentzako langileak eta bazkideak batera zenbatu edo kontua hartu eta gero euren artean izendatzea euren ordezkariak.

### 2. Migratzaileak

Kooperatibak formula egokia dira migratzaileak lan-merkatutzeko eta gizartean integratzeko. Migratzaile zaurgarriaren ari gara pentsatzen, hots, gizartean baztertuak izateko arrisku gehien dutenetan (Arrieta, 2022b).

Kooperatiba-formula egokia da, kooperatiba-printzipioetatik 1 eta 7.enak oinarritzat hartuta: bazkideak modu borondatez bidez kooperatibari atxikitzea eta komunitatearenganako ardura edo interesa. Halaber, oinarri garrantzitsuak dira EKren 129.2 artikulua eta martxoaren 29ko 5/2011 Legearen, Gizarte Ekonomiaari buruzkoaren, 4.c) artikulua, batak kooperatibak sustatzeari alde egiten duelako eta besteak kooperatibei ezartzen dielako kokatuta dauden komunitatea modu jasangarrian garatzeko betekizuna. Horrenbestez, justifikatuta dago pertsona horiek laneratzeko xedea duten kooperatibak sustatzea. Horren haritik doa, hain zuzen, Europako Ekonomia eta Gizarte Komitea, 2018ko maiatzaren Irizpenean: «Gizarte-ekonomiako enpresak migratzaileak integratzeko motor bezala».

Migratzaileak ikuspuntu soziolaboraletik integratzeak, lan duinarekin betiere, saihesten du pertsona horiek gehiegikeriak eta lan esplotazioa jasatea, horren biktima izatea. Baita trataren edo legearen aurkako trafikaren biktima izatea ere. Helburua da administrazio-egoera irregularrak ekiditea.

Badira, migratzaile zaurgarrienei zuzenduta, nazioarteko babeseko mekanismoak, honako hauek aintzat hartzen dituztenak: errefuxiatuak, genero-indarkeriaren biktimak, antolakunde

kriminalen aurkako borrokan lankidetzan aritzen direnak, trataren biktimak... Horrelako mekanismoak lagungarri dira integrazio soziolaboralerako bidean. Baina mekanismo horiek gorabehera, urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren, atzerritarren eskubide eta askatasunei eta horiek gizarteratzeari buruzkoaren, arabera Administrazio publikoek migratzaile guztiak gizarteratzearen alde egin behar dute, batik bat, kontuan hartuz asko gizartean baztertuta daudela edo arriskuan. Hortik, bada, integrazio soziolaborala lanabes aproposa izatea, gizarte-bazterketa saihesteko.

Halatan, lan elkartuko kooperatibetan, migratzaileak laneratzeari dagokionez, jatorrian egindako kontratazioak modu kolektiboan kudea daitezke, bertoko langileak falta diren sektoreetan. Dena den, kontuan hartu behar da kooperatibaren tamaina, kooperatibizatutako jardura gauzatzeko behar den bazkide-kopurua, ekonomia-sektorea... Migratzaile horien lehenengo kontratazioa lan-izaerakoa izango da eta gero egingo dira bazkide.

Bestalde, lankidetzako kooperatibaren formula egokia da, kooperatiba-taldean emandako jarraibideen bidez lortzeko, bateko, zenbait lanpostu migratzaileentzat erreserbatzea, eta, besteko, aldian-aldiko ekarpenak egiteko konpromisoa hartzea, egoera ekonomikoaren arabera, kolektibo hori enplegatzerako bideratutako funtsa eratze aldera.

Kooperatiba batzuek beren xedeen artean dute migratzaileak laneratzea eta gizarteratzea: gizarte-integrazioak eta gizarte-ekimeneko kalifikazioa lortu dutenek.

Badira lan-elkartuko kooperatiba berezi batzuk, migratzaileak ekonomia irregularrean aritzea saihestu dezaketenak: salmenta ibiltarien kooperatibak Madrilen eta enpresa-sustatzekoak Euskal Autonomia Erkidegoan.

Halaber, baliteke lan-elkartuko kooperatiba bat, gizarte-integrazioakoa izango dena batik bat, aldi berean laneratze-enpresa gisa eratzea. Formula horrek badu abantaila 9/2017 Legeari begira, horrek lehenetsuna ematen baitio horiek kontratatzeari esleipen-prozesuetan.

### 3. Desgaitasuna duten pertsonak

Oro har, kooperatibak egokiak dira enplegu arrunta bultzatzeko. Hori bat dator Europako Gizarte Gutunarekin, Berrikusitakoarekin (15. artikulua) eta 2000/78 Zuzentarauarekin.

Edonola ere, kooperatiba batzuk babestutako enpleguan kokatu behar dira: gizarteratzeako kooperatibak edo gizarte-ekimenekoak, nahiz eta lan-elkartukoak izan. Gainera, kooperatibek aldi berean aldi baterako enpresa-batasunak era ditzakete laneratzeako beste enpresa edo enplegu zentro berezi batzuekin: klausula sozialekin bat etortzeko eta kontratu publikoak lortzeko (Arrieta-Idiákez, 2019).

Azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzazko Errege Dekretuaren 42.1 artikulua desgaitasuna duten pertsonentzako lanpostuen erreserba-kuotak ezartzeko betebeharra jaso du enpresa publiko nahiz pribatuen kasuan. Hala ere, Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Ikuskatzailetzaren 98/2016 Irizpidearen arabera, arau hori ez da aplikagarri kooperatibetako bazkideen kasuan. Beraz, kooperatibetan izan daitezkeen inorentzako langileen kasuan bakarrik aplikatu behar da. Baina kasu horretan ere, lanpostuen erreserba-kuotak aplikatzeko betebeharra salbuetsita gera daiteke, 364/2005 Errege Dekretuaren 1. xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera (Arrieta-Idiákez, 2019). Horregatik, beharrezkoa da kooperatiba-legeek beren-beregi arautzea erreserba-kuota horiek bazkideen kasuan ere.

## III. Trantsizio digitala

Trantsizio digitalaren erronkari begira, kooperatiba digitalak baliagarri dira inorentzako langileen eta langile autonomoen arteko dikotomiaren haritik sortu ohi diren gatatzak gainditzeko (uber edo *rider* ekonomia, alegia), bai eta bazterreko lanek sortu ohi dituztenak ere (mikrozereginen kasuan batik bat).

Kooperatiba digitalak egituratzeari dagokionez, zerbitzuak ematen dituzten plataforma digitalen esparruan kokatu behar dira eta elkarlaneko ekonomiari lotu behar zaizkie. Esangura horretan, Europar Batasunak sarritan lotu ditu kooperatibak eta elkarlaneko ekonomia. Bada, kooperatiba digitalak alternatiba direla eta elkarlaneko ekonomiaren eredu bakarra direla defendatzen dugu elkarlaneko ekonomiara ezin bil daitezkeelako inorentzako lana eta lan autonomoa. Horretarako, Europako Erregioen Komitearen definizioa hartu da oinarritzat, bai eta Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteak darabilen idea ere: elkarrekikoa ez den jokabide prosoziala.

Kooperatiba digitalak beren-beregi arautu daitezke, kooperatiba-formula desberdinak kontuan hartzea gorabehera, EKLak garraio-kooperatibekin egin bezala, lan-elkartuko garraio-kooperatibak (garraio-kooperatibak) edo garraiolarien kooperatibak aintzakotzat hartzean (129. artikulua). Baina baliteke kooperatiba digitalak beren-beregi ez arautzea ere. Horrelakoetan estatutuetan jaso daiteke kooperatiba digitalaren izaera, autoaruketan eta autokudeaketan oinarrituta. Hori eginez gero, estatutuetan zehaztu beharko lirateke kooperatibizatutako jarduera, erregistroak kooperatiba-formula zehatzen bat aplikatzeko eta egunerokotasunean horren arabera jarduteko, eta kooperatiba-printzipioak.

Dena den, gu kooperatiba digitalak beren-beregi arautzearen aldekoak gara. EKLren kasuan kooperatiba-printzipioak kooperatibaren definiziora bildu direnez, kooperatiba digitalak arautzean ez legoke printzipio horiei erreferentziarik egin beharrik. Edonola ere, uste dugu garrantzitsua dela eman beharreko definizioan elkarlaneko ekonomiari erreferentzia egitea. Helburua hau da: interesdun alderdi aniztunaren teoria kooperatibaren ideiarekin bat etortzea, plataforma digitalen esparruan diharduten izaera oso desberdineko alderdien interakzioa eragiteko: inbertsoreak, gobernuak edo langileak. Horren adibide dira Coloradoko Uniform Limited Cooperative Association Act (UCLAA) eta Frantziako Interes Kolektiboko Kooperatibak, 2001-624 Legeak sortu zituenak (Arrieta-Idiákez, 2021).

#### IV. Trantsizio ekologikoa

Trantsizio ekologikoari dagokionez, kooperatibek lan berdea edo urdina sustatzeko ekarpenak egin ditzakete, kooperatiba-printzipioetatik, 7.ena oinarritzat hartuta. Hain zuzen, horren arabera, kooperatibek komunitatearekiko konpromisoa izan behar dute, garapen jasangarriaren alde eginez eta ingurumena zainduz. Alabaina, 1995eko Nazioarteko Aliantza Kooperatiboaren Adierazpenean esanbidez esan da bazkideek erabaki behar dutela printzipio horren norainokoa, 2. printzipioarekin bat etorriz, hau da, kudeaketa demokratikoaren bidez.

Edonondik begiratzen zaiola ere, kontuan hartu behar da gero eta gehiago direla ingurumenari buruzko lege-betekizunak. Edu horretan, gaur egun, lan-arriskuen prebentzioaren esparru tradizionala, hots, enpresa barrukoa, gainditu eta enpresatik haratago, enpresek ingurumenean duten eragina kontrolatzen da, bai eta, hala denean, kasuan kasuko zehapen eta zigorrak ezarri ere. Orobat, trantsizio ekologikora ez egokitzeak langabezia sor dezake. Aitzitik ekonomia berdearen eta urdinaren merkatuak eskaintzen dituen aukerak behar bezala baliatuz gero, enpleguak sor daitezke. Hain justu ere, trantsizio horretan kalitatezko enpleguak sortzeko ezinbestekoa da kooperatiba-printzipioetatik 5.a, prestakuntza oinarritzat duena.

Hori guztiori aintzat hartuta, guk fase desberdinak proposatzen ditugu, kooperatibek ekarpenak egin ditzaten (Arrieta-Idiákez, 2020; Arrieta-Idiákez, López-Rodríguez, 2021): (a) demokratikoki ingurumen-politiken gaineko jarraibide orokorrak hartzea, kooperatibako kide guztiak kontuan hartuta; (b) Gizarte Kontseiluaren egitekoa indartzea, kooperatibak ingurumenarekiko ardura behar bezala gauzatzen duela kontrolatzeko; (c) ingurumenaren gainean eskumenak dituzten organo bereziak sor daitezke estatutuetan edo Biltzar Nagusiaren akordio bidez: ingurumen-eskuordeak. Kasu horretan, kooperatiba-legeek arautu beharko lukete

eskuorde horiek izendatzeko modua eta horien eskumen, eginkizun, eskubide eta betebeharrak. Halaber, posible litzateke ingumenarekin zerikusia duten kontuak prebentzio-eskuordeen esku uztea, eta gero, hala bada, Segurtasun eta Osasun Komitea baliatzea. Hala eta guztiz ere, guk, kasu honetan ere, prebentzio-eskuordeen alde eginez gero, 31/1995 Legearen 10. xedapen gehigarriak ezarritakoaren ildotik joko genuke.

Bestalde, garrantzitsua da gerogarrenean ingurumen-politikak ziurtatzea, egiaztatzea. Horretarako proposatzen dugu, besteak beste, UNE-ISO 14001:215 eta Europar Batasuneko azaroaren 25eko 1221/2009 Erregelamenduak araututako EMAS auditoretza baliatzea.

Formakuntzari dagokionez, Heziketarako eta sustapenerako funtsa kontuan hartu beharko litzateke.

Kooperatiba batzuen xedea ingurumena zaintzea da. Hori da kooperatibizatutako jarduera gisa ekonomia zirkularra, energia berriztagarriak, arrantza, nekazaritza edo abeltzaintza jasangarria dutenak. Baina hemen ere ezinbestekotzat jotzen dugu interesdun alderdi aniztun kooperatibaren ideia, kooperatibok sortu eta iraunarazteko.

## V. **Gizarte-babesa**

Gizarte-babesaren esparruan kooperatibek beren bazkideentzako borondatezko gizarte-aurreikuspenaren inguruko erabakiak hartzea bultzatzea, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei (BGAE) buruzko otsailaren 23ko 5/2012 Legean xedatutakoari jarraituz. Modu horretara, kooperatibek, borondatezko gizarte-aurreikuspeneko lehentasunezko erakunde bidez babes hobea lor dezakete beren bazkideentzat, Gizarte Segurantzaren Sistemak dituen jasangarritasun-arazoak kontuan hartuta. Are gehiago, kooperatibek, gizarte-babesaren gaineko ardurak hartuta, babes-eredu alternatibo edo ia-ia alternatiboak era ditzakete, edo, besterik gabe, osagarriak, Gizarte Segurantzako Sistemaren jasangarritasun finantzarioa arinduz. Horregatik, estatuko legeriak kontuan hartu beharko luke hori, esaterako, autonomoen araubide-berezian sistema berezia arautuz, kooperatibek egin beharreko kotizazioetan kontuan har dadin autokudeaketaren bidez gauzatu dezaketen babesa. Gure artean, Lagun Aroren esperientzia litzateke horren guztiorren adibiderik onena eta estatuko legerian kontuan hartu beharko litzatekeena (Arrieta-Idiakez, 2023).

## VI. **Ondorioak**

*Lehenena:* kooperatibetan berdintasun-planak arau bidez ezarri behar dira oraintsu egin den bezala EKL-a aldarazita, baina horiek ezartzeko kontuan hartzen den enplegatu-kopuruari dagokionez kooperatibetan lan egiten duten pertsona guztiak zenbatuta, horiek bazkide izan ala ez.

*Bigarrena:* kooperatibak aproposak dira zaurgarrienak diren migratzaileak laneratu eta gizarteratzeko. Lehenengo jatorrian egindako kontratazioak modu kolektiboan kudea daitezke lan-kontratuak egiteko migratzaileei, eta, gerogarrenean, migratzaile horiek bazkide bihurtu daitezke. Horretarako, garrantzitsua da kooperatiba-taldean emandako jarraibideen bidez migratzaileak laneratzeko politikak gauzatzea. Gainera, kooperatiba batzuek beren xedeen artean dute migratzaileak laneratzeko eta gizarteratzeko politikak gauzatzea. Gizarte-ekonomiako beste erakunde batzuen izaera ere baliatzea kooperatibek.

*Hirugarrena:* desgaitasuna duten pertsonen dagokionez, kooperatibak enplegu arruntaren alde egiteko bide egokia dira, bai eta, hala denean, babestutako enplegua behar bezala bideratzeko ere. Hala ere, kooperatiba-legeek beren-beregi arautu beharko litzateke desgaitasuna duten pertsonentzako lanpostuen erreserba-kuotak.

*Laugarrena:* trantsizio digitalari helduz, kooperatiba digitalen garrantzia nabarmendu behar da, batik bat inorentzako eta bere gaineko langile izatearen inguruko gatazkak saihesteko. Horregatik, ezinbestekoa da kooperatiba horiek esanbidez arautu eta definizio propioa izatea, elkarlaneko ekonomiari erreferentzia eginez.

*Bosgarrena:* trantsizio ekologikoari dagokionez, kooperatibek fase desberdinetan gauzatu behar dute kooperatiba-printzipioetatik zazpigarrenak ezarritakoa, erabakiak hartu, erabakiok betearazi, bazkideak prestatu, baliabide ekonomikoak bideratuta, eta erabakiak zuzen betetzen direla ziurtatuta.

*Seigarrena:* gizarte-babesaren ikuspuntutik kooperatibek pentsio publikoek izango dituzten gabezien aurrean babes egokia bermatzeko arduraren dute, eredu alternatibo edota osagarriak sortuz, bai eta Gizarte Segurantzako Sistemaren jasangarritasun finantzarioa arintzekoa ere.

## Bibliografía

- Arrieta Idiakez, F.J. (2019). El empleo ordinario en las cooperativas. En F.J. Arrieta Idiakez (Ed.), *Cooperativas y empleo de calidad para las personas con discapacidad* (207-214 orr. eta 221-226 orr.). Aranzadi-Thomson Reuters.
- Arrieta Idiakez, F.J. (2020). Aspectos medioambientales a considerar en la formación de los socios cooperativistas. *International Association of Cooperative Law Journal*, 57, 147-169.
- Arrieta Idiakez, F.J. (2021a). Las cooperativas digitales. In R. Alfonso Sánchez y M.M. Andreu Martín (Eds.), *Digitalización de la actividad societaria de Cooperativas y Sociedades Laborales* (427-485 orr.). Aranzadi-Thomson Reuters.
- Arrieta Idiakez, F.J.; López Rodríguez, J. (2021). Empleos verdes y cooperativas. *Noticias CIELO*, 9.
- Arrieta Idiakez, F.J. (2022a). *La participación de las personas socias y de las personas trabajadoras en las cooperativas para determinar las condiciones de trabajo*. Dikyinson (103-105 orr.).
- Arrieta-Idiakez, F.J.; López-Rodríguez, J.; Martínez-Etxeberria, G. (2022b). Workers' cooperatives as a tool to promote labour market inclusion for migrants. *International Association of Cooperative Law Journal*, 60, 19-46.
- Arrieta Idiakez, F.J. (2023). *Lagun Aro: Una experiencia de modelo alternativo de protección social*. Dykinson (1-199 orr.).